



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2009KO IRAILAREN 3AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarerratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Jasone Bernaola Aurrekoetxea
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko irailaren 3an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2009ko ekainaren 25ean izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

• **Ekainaren 22ko 2009/54 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioaren onarpena.

• **Ekainaren 24ko 2009/55 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** “Ajangizko oinezkoen higikortasun sarea: Zunbitxua-Aristieta eta Mentzeta auzorako bidea I. fasea” burutzeko gastua onartu eta lanak Construcciones Intxausti S.A. enpresari esleitzea.

• **Ekainaren 30eko 2009/56 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko 2. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroiaren onarpena.



Ajangizko Udala

• **Uztailaren 1eko DECRETO DE ALCALDIA N°2009/57.-** Maier Technology Centre enpresari jarduerarako baimena aurkezteko bi hilabeteko epea ematea eta MAIER S.Coop. eta MAIER Technology Centre (MTC) enpresei bi hilabetetan eraikuntza baimenak aurkezteko agindua.

• **Uztailaren 3ko 2009/58 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika-Lumoko polikiroldegiko kuotetarako dirulaguntza.

• **Uztailaren 3ko 2009/59 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2009ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.

• **Uztailaren 3ko 2009/60 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mentzeta auzora doan bidea argiztatzeko proiektu eta gastuaren onarpena.

• **Uztailaren 3ko 2009/61 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko martxoaren 10eko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren aurka Bide, Ubide eta Portuetako Ingenierien Kolegioak jarritako auzo errekurtsioan parte hartzeko erabakia eta udalaren ordezkarien izendapena.

• **Uztailaren 21eko 62/2009 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 1/2009 Kreditu aldaketarako espedientearen hasiera.

• **Uztailaren 24ko 2009/63 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu auzoko Aristieta baserrian “velux”ak sortu eta fatxadako arozteria berritzeko lanetarako baimena.

• **Uztailaren 24ko 2009/64 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 42 etxe ondoan dagoen txabola berritzatzeko baimena.

• **Uztailaren 24ko 65/2009 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udal aurrekontuan kreditu arteko transferentzia espedientearen hasiera.

• **Uztailaren 24ko 2009/66 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kreditu transferentzia bidezko 2009/02 Kreditu Aldaketarako espedientearen onarpena.

• **Uztailaren 24ko 2009/67 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2009ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.

• **Uztailaren 24ko 2009/68 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika-Lumoko polikiroldegiko kuotetarako dirulaguntza.



Ajangizko Udala

- **Uztailaren 24ko 2009/69 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kreditu gaikuntza bidezko aurrekontu aldaketarako espedientearen hasiera.
- **Uztailaren 24ko 70/2009 ZENBAKIDUN ALKATETZAREN EBAZPENA.-** Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea.
- **Abuztuaren 10eko 71/2009 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ezkontzarako ahalmenaren eskuordetzea.
- **Abuztuaren 10eko 2009/72 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko Alkate orde den Javier Berrojalbiz Bidaguren jauna, Alkatea kanpoan dagoen bitartean Alkatetzarako funtzioak egiteko ahalmentzea, abuztuaren 15etik 22ra bitartean bi egun horiek barne.
- **Abuztuaren 10eko 2009/73 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier-Mendieta landabieda egokitzeko lanak (II. Fasea) behin-behinez CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea
- **Abuztuaren 12ko 2009/74 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-4765-BD ibilgailuaren 2009ko zerga bueltatzea.
- **Abuztuaren 12ko 2009/75 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-7316-AK ibilgailuaren 2009ko zerga bueltatzea.
- **Abuztuaren 12ko 2009/76 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika-Lumoko polikiroldegiko kuotetarako dirulaguntza.

3.- AJANGIZKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN ERREDAKZIO PROZEDURARAKO HERRITARREN PARTAIDETZA ETA INFORMAZIO PUBLIKORAKO PROGRAMAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, Ajangizko hiri antolaketarako plan orokorra bideratzeko eta onartzeko beharrezko herritarren partaidetza egitaraua aurkezten du.

Euskadiko lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen helburu eta printzipio orokorren artean, horietako bat herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzea da. Helburu hori lortzeko programa hau gauzatzen da egun indarrean dauden Arau Sorosgarriak ordezkatuko duten Ajangizko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra proposatu, bideratu eta onesteko prozesuan parte hartzeko eskubidea erabiltzeko aukera emateko bitarteko nahikoak biltzen dituen.



Ajangizko Udala

Prozedura honetan, herritarren iritzia jaso asmoz, Udalak datuak biltzeko sistema desberdinak jarri ditu martxan. Horietako bat galdeketa da, lehen pausu modura Ajangizko herritarrek herriari buruz dituzten kexa, iritzi, beharrian, asmo...eta abar ezagutzea helburu duena. Galdeketa hau Udaletxean kokatuko diren panelekin osatuko da, denen artean ahalik eta ikuspuntu zehatzena jasotzerik izan dezagun.

Planeamendu berria osatzeko prozeduran, "Abanzea" onartzen den momentuan, auzo bakoitzeko batzarrak ospatuko dira planeamendua egiten dagoen taldearekin, auzo desberdinetan bakoitzaren iritziak jasotzeko.

Programa botaziora aurkeztuta, bildutako zinegotzien aho batez onartutzat jotzen da.

4.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN II. FASEAREN ESLEIPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, 2009ko ekainaren 25ean, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen (II. Fasea) proiektua, administrazio baldintza zehatzen agiria eta preskripzio teknikoaren orria onartu zuen, esleipen prozedurari hasiera emonaz.

Sektore Publikoko kontratuak arautzen duen publizidadedun prozedura negoziatua jarraituz, lanak Construcciones Intxausti S.A. empresari esleitu zitzaizkion behin-behinean 2009ko abuztuaren 10eko 2009/73 Alkate Dekretu bidez.

Esleituak pleguak jarritako baldintzak bete dituela kontutan hartuta eta baldintza agiriko 21. artikulua adierazten duen eran bermea jarrita.

Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (I. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea, guztira 248.894,20 euroko kostuarekin eta berrogeita hamalau laneguneko epea betez, Baldintza Partikularrak arautzen dituen Pleguak jarritako gainerantzeko baldintza guztien arabera, beti ere, kontratistak eskeinitako gainerantzeko zehazketak kontutan hartuta.

2.- Baldintza Agiriko 21. Atalean jasotzen diren betebeharrak kontutan hartuta hamar laneguneko epean, esleituak honako ekintzak burutu beharko ditu:

- a) Administrazio honen bulegotara etorri proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta zuinketa akta izenpetzeko.
- b) Azkenik, administrazio honen bulegotara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.



Ajangizko Udala

4.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

5.- AJANGIZKO UDALEKO 2008 EKITALDIKO KONTU OROKORREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. Artikuluak araututakoa betez, Ajangizko Udaleko 2008ko kontu orokorrak jendaurrean aurkeztu (2009ko uztailaren 1eko 123 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean) dira.

Jenduarreko epean inolako alegazio ezta erreklamaziorik aurkeztu ez dela kontutan hartuta,

Udal Osoko Bilkurak, batzartutako ziengotzien aho batez ebazten du:

2008ko Udal Aurrekontuko Kontu Orokorrak onartzea.

6.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1/2009 ESPEDIENTEA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2009 ekitaldian, Mentzetako bidean argindar publikoa jartzeko proiektua martxan jarri du. Horretarako 2009ko udal aurrekontuan, 40.000 euroko partida onartu zuen (730.62810).

Lanak bi eratako ekintza eskatzen zutela kontutan hartuta, Electricidad MINTEGIA eta J.M. GARATXENARI agindu zitzaizen hauek burutzea, argindar instalazioari buruzko lana lehenari eta obra zibila bigarrenari. Lanonkostu orokorra 39.769,56 eurokoa zen.

Lanak burutu ahala baina, burutu beharreko lan berriak sortu dira, Mentzetako bidea egokitzeko lanen I. fasean egindako argindar kanalizazioa gaizki egina zegoela ikusi baita: instalazioak ez zituen legeztatutako baldintzak betetzen, puntu batzuetan instalazioa agerian zegoen, hodiak lurrez beteta, arketak era ez egokian eginda...

Horrek hasierako kostu aldatu beharra ekarri du, guztira 4.078,26 euro gehiago:

- Instalazio elektrikoa: 1.578,02 €gehiago, guztira 35.493,92 €
- Obra zibila: 2.500,24 €gehiago, guztira 8.353,90 €

Egoera honi aurre egiteko, Udalak 2009 aurrekontua aldatu beharra ikusi du eta gehikuntza bidezko kreditu aldaketa proposatzen da dudiruzaintzako gerakinaren gain.

GEHITU BEHARREKO PARTIDAK	KOPURUA
730.62810	3.847,82 €
GUZTIRA	3.847,82 €

GUTXITU BEHARREKO PARTIDAK	KOPURUA
-----------------------------------	----------------



Ajangizko Udala

	CUANTIA
Remanente líquido de tesorería	3.847,82 €
GUZTIRA	3.847,82 €

Aldaketa honek, kreditu gehikuntza suposatzen duenez, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 34.3 artikulua araututakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Hau guztia kontutan izanda, Udal Osoak aho batez onartzen du:

Lehenengo.- Mentzeta auzorako bidea argiztatzeko proiektuan kostu gehiketa onartu eta kreditu gehiketaz egindako 1/2009 aurrekontuaren aldaketa behin behinez onartzea.

Bigarren.- Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdun direnek dagozkien elegiteak aurkezterik izan dezaten.

Hirugarren.- Elegiterik aurkeztuko ez balitz, proposatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Laugarren.- Ebazpen honen berri udal kontuhartzaitzari ematea, beharrezko diren kontabilitate aldaketak egin daitezkan.

7.- KANPANTXUKO ARGINDARRA HOBETZEKO LANEN 1. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2009ko apirilaren 30ean ospatutako batzarrean, besteak beste, Kanpantxuko argindarra hobetzeko lanak J.M. GARATXENA ABAROA jaunari esleitzea onartu zuen, guztira 78.229,00 euroko kostuarekin.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate ingeniariak, 32.311,78 euroko lanen 1. Ziurtagiria aurkeztu du, burututako lanen adierazle.

Ziurtagiriari, J.M. Garatxena Abaroa jaunak 32.311,78 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako 28 zenbakidun faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Kanpantxuko argindarra hobetzeko lanen lehen ziurtagiria onartzea, 32.311,78 euroko kostu orokorrarekin.

2.- J.M. Garatxena Abaroak aurkeztutako 32.311,78 euroko kopuru orokorra duen 28 zenbakidun faktura onartzea.

2.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.



Ajangizko Udala

8.- BIZKAIKO LANDA EREMUEN GARAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIEI BURUZKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN MARTXOAREN 17KO 37/2009 FORU DEKRETUAREN AURKA AJANGIZKO UDALAK JARRITAKO ERREKERIMENDUA GAITZESTEN DUEN BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO GOBERNU KONTSEILUAK 2009KO UZTAILAREN 7AN HARTUTAKO EBAZPENAREN AURKA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZO ERREKURTSOA JARTZEKO AKORDIOA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2009ko uztailearen 15ean (593 sarrera zbkia.) Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2009ko uztailearen 7an hartutako erabakiaren berri izan du. Erabaki horretan Koldo Carbonell Oihartzabal jaunak, Ajangizko Udalaren izenean eta honen ordezkari gisa, Bizkaiko Landa Eremuen Garapenerako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriei buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 17ko 37/2009 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekimendua gaitzesten da.

Udalaren errekerimentuan, Ajangizko Udala Foru Dekretuaren I. Eranskinean Ajangiz kanpo uztearen kontra egiten zen, bertan EREIN programak egiten duen sailkapena aipatuz nekazal lurrun nekazaritzazkoa ez den herri modura sailkatzen baitzen Ajangiz.

Jasotako ebazpenaren aurka Udalak administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezake, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzietarako Salan, jakinerazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

Ajangizko Udalak bere ondasun eta eskubideen babeserako legezko akzioak hatu behar ditula jakinda.

Toki Erregimeneko Oinarriak babesten dituen apirilaren 2ko 7/1985 legeko 22.j) legeak arautzen dituen eskumenetan oinarrituta,

Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

Lehenengo.- Bizkaiko Landa Eremuen Garapenerako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriei buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 17ko 37/2009 Foru Dekretuaren aurka Ajangizko Udalak jarritako errekimendua gaitzesten duen Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2009ko uztailearen 7an hartutako ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea.

Bigarren.- Udaletxe honetako interesen defentzarako EKAIN Aholkularitzako abokatuak izendatzea:

Luis URKIZA UGARTE jauna, Juan LANDA MENDIBE jauna, Jon ANDA LAZPITA jauna, Eneko ANZUOLA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA jauna, Nieves MARTÍN RAURICH andrea eta Marisol LÓPEZ DE ALDA RUIZ DE ARBULO andrea.

Hirugarren.- Udaletxeko ordezkari Francisco Ramón ATELA ARANA eta Gabriel MARCOS RICO Bilboko Prokuradoreei agintzea.



Ajangizko Udala

9.- BUSTURIALDEKO ETXERAT-EN IZENEAN JOSE ANTONIO ARANBURU AGIRRE JAUNAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak Busturialdeko ETXERATetik bidalitako mozioa irakurtzen du.

Urte luzeetan Frantzia eta Espainiak euskal presoiei ezarri dien politika penitentzarioak minak, penak eta heriotzak baino ez ditu ekarri.

Estrategia honekin amaitzeko eskatzen dugu eta zehazki honako aldarrikapen hauek bere egiten ditu AJANGIZKO udalbatzak:

- *Gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoak berehala aska ditzatela.*
- *Biziarteko zigorra ezartzeko neurriak bertan behera utz ditzatela: kondena betearen duten presoak kaleratuz eta kalean dauden preso ohiak bakean utziz.*
- *Euskal presoak Euskal Herriratuak izan daitezela, sakabanaketa, urruntze eta bakartze politikarekin amaituz.*

EAEko parlamentuari eta agintari espainol eta frantsesei erabaki honen berri emango zaie eta guzti honen adierazgarri udalean “EUSKAL PRESOAL EUSKALERRIRA” ikurra jarriko da.

Roman Etxeandia jaunak mozio honetan eskatzen dena aurreko Eusko Jaurlaritzako Parlamentuak ere eskatu zuela aipatzen du. Eskakerak legeak dioena betetzea besterik ez du bilatzen, eta horretan ez dago kontra egiterik.

Mozioa botaziora aurkeztuta, batzartutako zinegotziek aho batez onartzen dute.

10.- AJANGIZKO UDALA ETA LURGOZO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udala eta Lurgozo Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibiko Elkartearen arteko hitzarmena proposatzen du Alkate Udalburuak.

Hitzarmen honetan, Ajangizko Udalak Mendieta auzoko 66an duen lokala prekarioan usten dio Elkarteari, bertan produktuak merkaturatzeko tokia jarri dezan. Udalak lokalaren erabilerarako baldintza batzuk jartzen dizkio Elkarteari, eta erabilera horren truke Elkarteak Ajangiztar guztiak bazkide modura hartuko ditu.

Lagapenaren iraunkortasunari dagokionez, lagapena atzera botako da Ajangizko Udalak bere erantzunkizunetarako beharrezko dela ulertzen duen momentuan, bidezko erabakia hartu eta ebazpena kontsumo entitateari jakineraziz.

Hitzarmena aurkeztuta, bildutako zinegotziek aho batez adosten dute:

Lehenengo.- Ajangizko Udala eta Lurgozo Kontsumo Ekologikorako Elkartearen arteko hitzarmena onartu eta Ajangizko Alkate Udalburua hitzarmena sinatzeko ahalmentzea.



Ajangizko Udala

Bigarren.- Erabaki honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

11.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkate Udalburuak, Maiერი buruz bi arkitekto joan zirela aipatzen du bertako eraikuntzen zerrenda egin eta legalizaziorako pausuak hasteko. Egindako lanaren ondorioz, Dekretu bidez instalazioen jarduera eta eraikuntza baimenak justifikatzeko eskatu zitzaizen bi hilabeteko epea emanaz. Epe hori irailaren 2an bukatzen zela kontutan hartuta, irailaren 1ean Maierek idatzi bat aurkeztu du Udaletxean, eskatutako puntuak aipatuz. Dokumentu hori udal aholkulari teknikoei helarazi zaie, aztertu eta hartu beharreko pausuak zehaztu dezaten.

Etxeandia jaunak jarduera baimenari buruz ezer aurkeztu duten galdetzen du. Alkateak dokumentu horretan jarduera ere aipatzen dela dio, baina asesoreek aztertu bitartean ezin duela zehaztu zer dagoen aurkeztuta eta zer ez.

- Kanpantxuko argindarra hobetzeko proiektua dela eta, Alkate jaunak lanak bukatzeko daudela aipatzen du, une honetan zolaketa eta Iberdrola egin beharreko zenbait lan baino falta ez direla aipatuz. Bi hodi handi jarri dira eta bertatik argindarra eramateaz gain, argindar publikoa eta Ur partzuergoak sartu beharreko hodi bat ere sartu dela aipatzen du. Horrez gain, egindako lanak aprobetxatuz telefonikako zenabait poste ere kendu dira inguruan, kanalizazioa aprobetxatuz kableak lurperatu egin dira eta.

Zubialde baserrian urarekin dagoen arazoa konpontzeko ere irtenbidea bilatu da, ura kanalizatu eta erre kara tubo transversal bat jarritz eta karkabako urak ere hodi bidez bideratuz.

- Alkateak Busturialdeko Ur Partzuergoak BIDEIN enpresak egindako saneamentuari buruzko proiektua Udaletxean aurkeztu duela aipatzen du. Alkatea bera Bideineko teknikoekin afektatutako lurretako jabeekin hitzegitera joan da, hoditeriaren bideak ahalik eta kalterik sortu dezan. Jabeetako gehienak konforme azaldu badira ere, badago proiektua onartzen ez duenik ere. Kasu horretan desjabetzapena aplikatu beharko da. Dena den une honetan arazo nagusia finantziaketarena da. Finantziaketa arazoak bideratzen direnean, herritarrei zuzendutako batzar bat ospatzea eskatu zaie teknikariei. Baiezkoa eman dute.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatziak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA